tegien titularrak, eta azken 12 hilabeteetan programan inskribatu direnak: gehienez 20 puntu.

e) Higiene-jarraibide egokien gidak ezarrita dituzten edo ezartzeko prozesuan diren nekazaritza-ustiategien titularrak, edo nekazaritza ekologikoari edo Ekoizpen Integratuari atxikitakoenak: gehienez 20 puntu.

f) Elikadura-sektoreari aplikatutako kalitatea kudeatzeko sistema normalizaturen bat ezarrita duten nekazaritza-ustiategien titularrak: ISO 22000 eta BRC/IFS protokoloa, besteak beste. gehienez 10 puntu.

g) Ekoitzi, eraldatu eta elaboratzeko prozesu osoa garatzen duten nekazaritza-ustiategien titularrak: gehienez 10 puntu.

h) Nagusiki nekazaritzako ustiategien titularrak, azken bi urteetan jarduerari buruzko prestakuntza-ikastaroak ziurta ditzaketenak: gehienez 10 puntu.

i) Landa-ingurunean gazteen eta/edo emakumeen enplegua sustatzen duten nekazaritza-ustiategiak: gehienez 10 puntu.

1.2.– Berariazko irizpideak:

a) Dekretu honen 8. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako urteko deialdi-aginduan, hala badagokio, nagusiki nekazaritzako ustiategien titularrak, lehentasunezko gisa ezarritako kalitate-programetakoak direnak: 20 puntu.

b) Dekretu honen 8. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako urteko deialdi-aginduan, hala badagokio, lehentasunezkotzat jotzen den zona batean kokatutako nekazaritza-ustiategiak: 15 puntu.

c) Titular nagusi gisa emakumeak dituzten nekazaritza-ustiategiak: 10 puntu.

d) Titular nagusi gisa gazteak dituzten nekazaritza-ustiategiak: 10 puntu.

2.– Puntuazioak ezingo dira inola ere hamartarrekin esleitu.

***27. artikulua.***– Laguntzen zenbatekoa.

1.– Aurreko artikuluan eta urteko deialdi-aginduan zehaztutakoa aplikatuz proiektu bakoitzak lortutako balorazioen arabera, 10. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, aurrekontu-ekitaldi bakoitzean proiektu bakoitzari esleitu beharreko laguntza honela gauzatuko da:

– 0 eta 10 bitartean: % 0ko laguntza.

– 11 eta 35 puntu bitartean: Diruz laguntzeko gastuaren % 10eko zuzeneko laguntza.

– 36 eta 60 puntu bitartean: Diruz laguntzeko gastuaren % 25eko zuzeneko laguntza.

– 61 eta 85 puntu bitartean: Diruz laguntzeko gastuaren % 40ko zuzeneko laguntza.

ma de Calidad recogido en el presente Decreto y que se hayan inscrito en el programa en los últimos 12 meses: hasta 20 puntos.

e) Titulares de explotaciones agrícolas que tengan implantado o estén en proceso de implantación de guías de prácticas correctas de higiene o acogidos bien a la agricultura ecológica o bien a la Producción Integrada: hasta 20 puntos.

f) Titulares de explotaciones agrícolas que tengan implantado alguno del los sistemas normalizados de gestión de calidad aplicados al sector alimentario: ISO 22000 y Protocolo BRC/IFS entre otros: hasta 10 puntos.

g) Titulares de explotaciones agrícolas que desarrollen el proceso completo de producción y transformación o elaboración: hasta 10 puntos.

h) Titulares de explotaciones agrarias a titulo principal que puedan acreditar cursos de formación referidos a la actividad en los dos últimos años: hasta 10 puntos.

i) Explotaciones agrícolas que fomenten el empleo de jóvenes y/o mujeres en el medio rural: hasta 10 puntos.

1.2.– Criterios Específicos:

a) Titulares de Explotaciones Agrarias a Título Principal que pertenezcan a los Programas de Calidad establecidos, en su caso, como preferentes en la orden anual de convocatoria prevista en el artículo 8 párrafo 2 del presente Decreto: 20 puntos.

b) Explotaciones agrícolas sitas en una zona determinada como prioritaria, en su caso, en la orden anual de convocatoria prevista en el artículo 8 párrafo 2 del presente Decreto: 15 puntos.

c) Explotaciones agrícolas cuyos titulares principales sean mujeres: 10 puntos.

d) Explotaciones agrícolas a título principal cuyos titulares sean jóvenes: 10 puntos.

2.– En ningún caso las puntuaciones podrán ser asignadas con decimales.

***Artículo 27.***– Cuantificación de las ayudas.

1.– En función de las valoraciones obtenidas para cada proyecto en aplicación de lo dispuesto en el artículo anterior y de la orden anual de convocatoria, sin perjuicio de lo establecido en el artículo 10, la ayuda a asignar a cada proyecto en cada ejercicio presupuestario, se materializará de la siguiente forma:

– De 0 a 10: 0% de ayuda.

– De 11 a 35 puntos: 10% de ayuda directa al gasto subvencionable.

– De 36 a 60 puntos: 25% de ayuda directa al gasto subvencionable.

– De 61 a 85 puntos: 40% de ayuda directa al gasto subvencionable.

– 86 eta 110 puntu bitartean: Diruz laguntzeko gastuaren % 55eko zuzeneko laguntza.

– 110 puntutik gora: Diruz laguntzeko gastuaren % 70eko zuzeneko laguntza.

2.– Laguntzaren urteko gehienezko zenbatekoa 3.000 eurokoa izango da pertsona onuraduneko.

***28. artikulua***.– Berariazko betebeharrak.

Laguntzaren pertsona onuradunek, dekretu honen 12. artikuluan ezarritako betebehar orokorrak betetzeaz gain, dekretu honen 21. artikuluaren 2. paragrafoan ezarritako kalitate-programaren batean inskribatuta egon eta parte hartu beharko dute.

III. KAPITULUA
ELIKAGAIEN KALITATEARI BURUZKO PROGRAMEN ESPARRUAN PRODUKTUEN INFORMAZIO ETA SUSTAPEN JARDUERETARAKO LAGUNTZAK

***29. artikulua***.– Helburua eta xedea.

1.– Kapitulu honen helburua ekoizleen elkarteentzako laguntzak arautzea da, elikagaien kalitate-programen esparruan produktuen informazio- eta sustapen-jarduerak gara ditzaten.

2.– Kapitulu honetan jasotako laguntzen xedea hauxe da:

a) Dekretu honetan sustatzen diren kalitatezko produktuen barne-merkatuko barneratze-maila eta kontsumoa gehitzea.

b) Dekretu honetan sustatzen diren kalitatezko produktuen balio erantsia sortzea bultzatzea.

c) Merkatuan hazkunde-potentzial handiena duten kalitate-programak bultzatzea.

d) Dekretu honetan laguntzen diren kalitate-programetan ekoizle berriak sartzea bultzatzea.

e) Programazio-aldian zehar, hautatutako hautazko kalitate-programa bakoitzaren 5 publizitate- eta sustapen-ekintza egitea gutxienez.

***30. artikulua***.– Pertsona onuradunak.

Kapitulu honetan arautukako laguntzen pertsona onuradunak izan daitezke dekretu honen 21. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako elikagaien kalitate-programen barruan dauden produktuen informazio- eta sustapen-jarduerak garatzen dituzten ekoizleen elkarteak. Batzordearen abenduaren 15eko 1974/2006 (EE) Erregelamenduaren (Kontseiluaren Nekazaritza Aldeen Garapenerako Nekazaritzaren Europako Funtsa, NGNEFren bitartez nekazaritza-aldeen laguntzari buruzko 1698/2005 Erregelamendua (EE) aplikatzeko xedapenak ezartzen dituena) 23. artikuluak aipatzen ditu elkarte horiek.

– De 86 a 110 puntos: 55% de ayuda directa al gasto subvencionable.

– Más de 110 puntos: 70% de ayuda directa al gasto subvencionable.

2.– La cuantía máxima anual de la ayuda por persona beneficiaria será de 3.000 euros.

***Artículo 28***.– Obligaciones específicas.

Las personas beneficiarias de la ayuda, además del cumplimiento de las obligaciones generales establecidas en el artículo 12 del presente Decreto, deberán permanecer inscritas y participar en alguno de los Programas de Calidad establecidos en el artículo 21 párrafo 2 del presente Decreto durante al menos 5 años.

CAPÍTULO III
AYUDAS A ACTIVIDADES DE INFORMACIÓN Y PROMOCIÓN DE PRODUCTOS EN EL MARCO DE PROGRAMAS DE CALIDAD DE LOS ALIMENTOS

***Artículo 29***.– Objeto y finalidad.

1.– Es objeto del presente Capítulo regular las ayudas a las agrupaciones de productores para que desarrollen actividades de información y promoción de productos en el marco de programas de calidad de los alimentos.

2.– La finalidad de las ayudas recogidas en el presente Capítulo es la siguiente:

a) Incrementar el grado de penetración y el consumo en el mercado interior de los productos de calidad que se promocionen en el presente Decreto.

b) Favorecer la generación de valor añadido de los productos de calidad que se promocionen desde este decreto.

c) Favorecer Programas de Calidad con mayor potencial de crecimiento en el mercado.

d) Favorecer la entrada de nuevos productores en los Programas de Calidad apoyados en el presente Decreto.

e) Realizar durante el periodo de programación al menos 5 acciones publipromocionales de cada uno de los Programas de Calidad elegibles seleccionados.

***Artículo 30***.– Personas beneficiarias.

Podrán ser personas beneficiarias de las ayudas reguladas en el presente capítulo las agrupaciones de productores a las que hace referencia el artículo 23 del Reglamento (CE) n.º 1974/2006 de la Comisión de 15 diciembre, por el que se establecen disposiciones de aplicación del Reglamento (CE) n.º 1698/2005, del Consejo relativo a la ayuda al desarrollo rural a través del Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural (FEADER), que desarrollen actividades de información y promoción de productos incluidos en los Programas de Calidad de los Alimentos establecidos en el párrafo 2 del artículo 21 del presente Decreto.

***31. artikulua***.– Diruz laguntzeko ekintzak.

1.– Kapitulu honen ondorioetarako, diruz laguntzekotzat jotzen dira ekintza hauek:

a) Estatuan egiten diren feriak eta erakusketak antolatzea, euren produktuak soilik edo kalitate berezituko beste produktu batzuekin batera aurkezteko xedearekin.

b) Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan edo Europako Batasuneko barne-merkatuan egiten diren feria eta erakusketetan parte hartzea, ekoizleen elkarteen merkataritza-jarduerak garatzeko xedearekin, euren produktuak aurkezteko, feria eta lehiaketetan banakako edo banatutako erakustokiak instalatuta.

c) Europar Batasunean feria, erakusketa eta zuzeneko misioetara joatea, laguntzaren eskatzaileak gainerako autonomia-erkidegoetako edo Europar Batasuneko estatu kideetako elikagaien arloko feria, erakusketa edo erosle edo preskriptoreei bisitaldiak eginez, kalitateko produktuak merkatu berrietan sustatzeko helburuarekin.

d) Ekitaldiak, biltzarrak eta jardunaldi teknikoak antolatzea, programan nekazari berriak, inskribatutakoak edo azken kontsumitzailea txertatzera bideratutako prestakuntza- edo zabalkunde-ekintzak barne hartuta.

e) Produktuen publizitate-, sustapen- edo zabalkunde-kanpainak egitea, azken kontsumitzaileari bideratuta, komunikazio-euskarri ezberdinen bidez (irratia, telebista, web-orriak, liburuxkak...).

f) Alderantzizko misioak egitea, hots, Euskal Autonomia Erkidegora bidaia antolatuak egitea, erosleek eta/edo iritzi-preskriptoreek kalitate-programaren ezaugarriak ezagut ditzaten, ekoizpen-inguruak eta instalazioak bisitatuz.

Iritzi-preskriptoreek nazioarteko prestigioa duten kazetari edo gastronomia-kritikariak izan beharko dute, prentsa espezializatuan idazten dutenak, edo bestelako prentsa batean erreportaje motaren bat egiten dutenak.

g) Erosle edo iritzi-preskriptoreentzako dastatzeak antolatzea, produktuaren ezaugarriak azaltzeko.

2.– Ekintza horiek guztiak Europar Batasuneko barne-merkatuan garatu beharko dira.

3.– Diruz laguntzeko ekintzek eskakizun hauek bete beharko dituzte gainera:

a) Informazio, sustapen, argitalpen eta publizitateko material guztiak 21. artikuluaren 2. paragrafoan ezarritako kalitate-programen erkidegoaren logoa izatea.

***Artículo 31***.– Acciones subvencionables.

1.– Se consideraran subvencionables, a efectos del presente capitulo, las siguientes acciones:

a) La organización de ferias y exposiciones que se celebren en el estado, con el fin de realizar la presentación de sus productos, en exclusiva o conjuntamente con otros productos de calidad diferenciada.

b) La participación en ferias y exposiciones, de carácter profesional que se celebren en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi o dentro del mercado interior de la Unión Europea, con el fin de desarrollar las actividades comerciales de las agrupaciones de productores mediante la presentación de sus productos en ferias y certámenes a través de la instalación de stands individuales o compartidos.

c) La asistencia a ferias, exposiciones y misiones directas, en el ámbito de la Unión Europea, consistente en visitas realizadas por el solicitante de la ayuda a ferias o exposiciones, o a compradores o a prescriptores del ámbito alimentario del resto de Comunidades Autónomas o de Estados Miembros de la Unión Europea, con el objeto de promocionar los productos de calidad en nuevos mercados.

d) La organización de eventos, congresos y jornadas técnicas que incluyan acciones de formación o divulgación dirigidas a la incorporación de nuevos agricultores al programa, a los ya inscritos o al consumidor final.

e) La realización de campañas de publicidad, promoción o divulgación de los productos, dirigida al consumidor final a través de los diferentes soportes de comunicación (radio, televisión, páginas web, folletos…).

f) La organización de misiones inversas, entendiéndose por tales, viajes organizados a la Comunidad Autónoma de Euskadi con el fin de que compradores y/o prescriptores de opinión conozcan las características del programa de calidad, mediante visitas a las zonas de producción e instalaciones.

Los prescriptores de opinión deberán ser periodistas o críticos gastronómicos de prestigio internacional que escriban en prensa especializada o realicen algún tipo de reportaje en otro tipo de prensa.

g) Organización de catas que conlleven la explicación de las características del producto a compradores o prescriptores de opinión.

2.– Todas estas acciones se deberán desarrollar en el mercado interior de la Unión Europea.

3.– Las acciones subvencionables deberán, además cumplir los siguientes requisitos:

a) Que en el material de información, promoción, publicación y publicidad contenga el logo comunitario relativo a los Programas de Calidad establecidos en el artículo 21 párrafo 2.

b) Portaera oldarkorrak ez bultzatzea, ezta jaiotza, arraza, erlijio, iritzi edo beste edozein egoera edo inguruabar pertsonal edo sozialengatiko bereizkeriarik ere.

c) Bultzatzen dituzten produktuak kontsumitzeko jende egokiarengana zuzenduta egotea.

d) Informazio- eta sustapen-ekintzek 21. artikuluaren 2. paragrafoan ezarritako kalitate-programetan barne hartutako produktuen ezaugarriak edo berariazko abantailak, berariazko ekoizpen-metodoak eta abereen ongizatea eta ingurumenarekiko errespetua bermatzeko aplikatutako arau zorrotzak azpimarratzea.

***32. artikulua.***– Diruz laguntzekoak ez diren ekintzak.

Ondorengo ekintzak ez dira diruz laguntzekoak izango:

a) Nekazaritza-produktuen informazio- eta sustapen-ekintzak barne-merkatuan sustatzeko Kontseiluaren 2000ko abenduaren 19ko 2826/2000 Erregelamenduaren (EE), bidez diruz lagundutako informazio- eta sustapen-ekintzak.

b) Merkataritzako marken sustapenarekin lotutako ekintzak.

***33. artikulua***.– Diruz laguntzeko gastuak.

1.– Ondorengo gastuak diruz laguntzekoak izango dira:

a) Feriak eta erakusketak antolatzeari dagokionez:

– Esparrua alokatzea.

– Esparrua egokitzea.

– Feria edo erakusketari buruzko informazio- eta zabalkunde-materiala.

– Feriaren edo erakusketaren esparruan antolatutako jardunaldi teknikoak.

b) Feria eta erakusketetan parte hartzeari dagokionez:

– Lurzorua alokatzea.

– Erakustokia eraiki eta dekoratzea.

– Materiala garraiatzea.

– Pertsona bati gehienez lau izarreko hotel batean edo antzekoan ostatu ematea.

– Pertsona baten hegazkin-txartela edo turista-mailako beste garraio mota batekoa.

– Ibilgailu partikularraren gastuak, joan-etorria hurbileko estatu batera egiten bada.

– Ekoizleen beste elkarte batzuekin batera feria eta erakusketetan parte hartzeagatik sortutako gastuak.

c) Feria, erakusketa eta zuzeneko misioetara joateari dagokionez:

b) Que no fomenten las conductas agresivas, ni la discriminación alguna por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.

c) Que se dirijan a público apto para el consumo de los productos objeto de las mismas.

d) Que las actividades de información y promoción resalten las características o ventajas específicas de los productos acogidos a los Programas de Calidad establecidos en el artículo 21 párrafo 2, los métodos de producción específicos así como las estrictas normas aplicadas para garantizar el bienestar de los animales y el respeto al medio ambiente.

***Artículo 32.***– Acciones no subvencionables.

No serán subvencionables las siguientes acciones:

a) Las actividades de información y promoción subvencionadas al amparo del Reglamento (CE) 2826/2000 del Consejo de 19 de diciembre de 2000 sobre acciones de información y de promoción de los productos agrícolas en el mercado interior.

b) Las actividades relacionadas con la promoción de marcas comerciales.

***Artículo 33***.– Gastos subvencionables.

1.– Serán objeto de subvención los siguientes gastos:

a) Respecto a la organización de ferias y exposiciones:

– Alquiler del recinto.

– Acondicionamiento del recinto.

– Material de información y difusión de la feria o Exposición.

– Jornadas Técnicas organizadas en el ámbito de la feria o exposición.

b) Respecto a la participación en ferias y exposiciones:

– Alquiler del suelo.

– Construcción y decoración del stand.

– Transporte del material.

– Alojamiento en hoteles de hasta cuatro estrellas o similar de una persona.

– Billetes de avión u otro tipo de transporte en clase turista de una persona.

– Gastos de vehículo particular, siempre que el desplazamiento sea a un Estado del entorno próximo.

– Gastos derivados de la participación compartida con otras agrupaciones de productores en ferias y exposiciones.

c) Respecto a la asistencia a ferias, exposiciones o misiones directas:

– Pertsona bati gehienez lau izarreko hotel batean edo antzekoan ostatu ematea.

– Pertsona baten hegazkin-txartela edo turista-mailako beste garraio mota batekoa.

– Ibilgailu partikularraren gastuak, joan-etorria hurbileko estatu batera egiten bada.

d) Ekitaldiak, biltzarrak eta jardunaldi teknikoak antolatzeari dagokionez:

– Esparrua alokatzea.

– Esparrua egokitzea.

– Informazio- eta zabalkunde-materiala.

– Hizlariak kontratatzeko gastuak.

e) Produktuen publizitate-, sustapen- edo zabalkunde-kanpainak egiteari dagokionez:

– Irrati-iragarkiak edo erreportajeak editatu eta ematea eta prentsa idatzian txertatzea.

– Liburuxkak, katalogoak edo antzekoak egitea, paperean zein euskarri elektronikoan.

– Web-orriak sortu eta mantentze-lana egitea.

– Publizitate-gastuak saltokian, zuzeneko marketinekintzen bidez.

– Publizitate-hesiak edo antzekoak instalatzea.

f) Alderantzizko misioak antolatzeari buruz:

– Pertsona bati gehienez lau izarreko hotel batean edo antzekoan ostatu ematea.

– Hegazkin-txartelak edo turista-mailako beste garraio mota batekoak, joan-etorria jatorriko lekutik eginda.

– Ibilgailu partikularrean egindako joan-etorriak, jatorriko lekutik EAEraino.

g) Dastaketak antolatzeari buruz:

– Erosle eta/edo iritzi-preskriptoreei zuzendutako dastatzeen salgai asimilatuak janaritegian erostea.

2.– Onuradun bakoitzeko, ekintza bakoitzaren barruan, gehienez ondorengo gastuak onartuko dira:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan feriak eta erakusketak antolatzeagatik, 10.000 euro gehienez: atal honetako ekintzetarako, eskatzaile bakoitzeko, urteko gehienezko zenbatekoa 30.000 eurokoa izango da.

b) Feria eta erakusketetan erakusketari gisa parte hartzeagatik:

– Euskal Autonomia Erkidegoko feria edo erakusketa bada, gehienez 4.500 euro.

– Estatuko feria edo erakusketa bada, gehienez 5.500 euro.

– Europar Batasuneko beste inongo feria edo erakusketa bada, gehienez 7.000 euro.

– Alojamiento en hoteles de hasta cuatro estrellas o similar de una persona.

– Billetes de avión u otro tipo de transporte en clase turista de una persona.

– Gastos de vehículo particular, siempre que el desplazamiento sea a un Estado del entorno próximo.

d) Respecto a la organización de eventos, congresos y jornadas técnicas:

– Alquiler del recinto.

– Acondicionamiento del recinto.

– Material de información y difusión.

– Gastos de contratación de los ponentes.

e) Respecto a la realización de campañas de publicidad, promoción o divulgación de los productos:

– Edición y emisión de anuncios o reportajes radiofónicos o televisivos así como su inclusión en prensa escrita.

– Elaboración de folletos, catálogos o similares tanto en papel como en soporte electrónico.

– Creación y mantenimiento de páginas Web.

– Gastos de publicidad en el punto de venta a través de acciones de marketing directo.

– Instalación de vallas publicitarias o similares.

f) Respecto a la organización de misiones inversas:

– Alojamiento en hoteles de hasta cuatro estrellas o similar de una persona.

– Billetes de avión u otro medio de transporte en clase turista, que suponga el desplazamiento desde el lugar de origen.

– Desplazamientos en vehículo particular desde el lugar de origen hasta la CAPV.

g) Respecto a la organización de catas:

– La compra en bodega de género asimilado a las catas dirigidas a compradores y/o prescriptores de opinión.

2.– Serán admisibles, por cada beneficiario, dentro de cada acción, como máximo los siguientes gastos:

a) Por organización de ferias y exposiciones en la Comunidad Autónoma de Euskadi hasta 10.000 euros: el importe máximo anual por solicitante para el conjunto de acciones de este apartado será de 30.000 euros.

b) Por participación como expositor en ferias y exposiciones:

– Por feria o exposición en la Comunidad Autónoma de Euskadi hasta 4.500 euros.

– Por feria o exposición en el Estado hasta 5.500 euros.

– Por feria o exposición en el resto de la Unión Europea hasta 7.000 euros.

Atal honetako ekintzetarako, eskatzaile bakoitzeko, urteko gehienezko zenbatekoa 24.000 eurokoa izango da. Ibilgailuen joan-etorriagatik 0,29 euro/km zenbatuko dira, gehienez 500 euroraino.

c) Feria, erakusketa eta zuzeneko misioetara joateagatik:

– Euskal Autonomia Erkidegoko ekintza bada, gehienez 800 euro.

– Estatu barruko ekintza bada, gehienez 1.000 euro.

– Europar Batasuneko beste inongo ekintza bada: 1.500 euro.

Atal honetako ekintzetarako, eskatzaile bakoitzeko, urteko gehienezko zenbatekoa 20.000 eurokoa izango da. Ibilgailuen joan-etorriagatik 0,29 euro/km zenbatuko dira, eta gehienez 500 euro.

d) Ekitaldiak, biltzarrak eta jardunaldi teknikoak antolatzeagatik: atal honetako ekintzetarako, eskatzaile bakoitzeko, urteko gehienezko zenbatekoa 12.000 eurokoa izango da.

e) Produktuen publizitate-, sustapen- edo zabalkunde-kanpainak egiteagatik.

Atal honetako ekintzetarako, eskatzaile bakoitzeko, urteko gehienezko zenbatekoa honelakoa izango da:

– Gehienez 50.000 euro, batez besteko prezioaren eta ziurtatutako bolumenaren arabera, produktuaren fakturatze-bolumena 1.000.000 eurotik beherakoa bada.

– Gehienez 100.000 euro, batez besteko prezioaren eta ziurtatutako bolumenaren arabera, produktuaren fakturatze-bolumena 3.000.000 eurotik beherakoa bada.

– Gehienez 150.000 euro, batez besteko prezioaren eta ziurtatutako bolumenaren arabera, produktuaren fakturatze-bolumena 5.000.000 eurotik beherakoa bada.

– Gehienez 200.000 euro, batez besteko prezioaren eta ziurtatutako bolumenaren arabera, produktuaren fakturatze-bolumena 7.000.000 eurotik beherakoa bada.

– Gehienez 250.000 euro, batez besteko prezioaren eta ziurtatutako bolumenaren arabera, produktuaren fakturatze-bolumena 9.000.000 eurotik beherakoa bada.

– Gehienez 300.000 euro, batez besteko prezioaren eta ziurtatutako bolumenaren arabera, produktuaren fakturatze-bolumena 9.000.000 eurotik gorakoa bada.

f) Alderantzizko misioak antolatzeagatik, gehienez 800 euro ekintzako, eta atal honetako ekintzetarako, eskatzaile bakoitzeko, urteko gehienezko zenbatekoa 10.000 eurokoa izango da. Ibilgailuen joan-etorriagatik 0,29 euro/km zenbatuko dira, eta gehienez 500 euro.

El importe máximo anual por solicitante para el conjunto de las acciones de este apartado será de 24.000 euros. En desplazamiento con vehículo se computarán 0,29 euros/km hasta un máximo de 500 euros.

c) Por asistencia a ferias, exposiciones y misiones directas:

– Por acción dentro de la Comunidad Autónoma de Euskadi hasta 800 euros.

– Por acción dentro del Estado hasta 1.000 euros.

– Por acción en el resto de la Unión Europea: 1.500 euros.

El importe máximo anual por solicitante para el conjunto de las acciones de este apartado será de 20.000 euros. En desplazamiento con vehículo se computarán 0,29 euros/km hasta un máximo de 500 euros.

d) Por organización de eventos, congresos y jornadas técnicas: el importe máximo anual por solicitante para el conjunto de las acciones de este apartado será de 12.000 euros.

e) Por la realización de campañas de publicidad, promoción o divulgación de los productos.

El importe máximo anual por solicitante para el conjunto de las acciones de esta apartado será:

– Hasta 50.000 euros, cuando en función del precio medio y volumen certificado, el volumen de facturación del producto sea inferior a 1.000.000 de euros.

– Hasta 100.000 euros, cuando en función del precio medio y volumen certificado, el volumen de facturación del producto sea inferior a 3.000.000 de euros.

– Hasta 150.000 euros, cuando en función del precio medio y volumen certificado, el volumen de facturación del producto sea inferior a 5.000.000 de euros.

– Hasta 200.000 euros, cuando en función del precio medio y volumen certificado, el volumen de facturación del producto sea inferior a 7.000.000 de euros.

– Hasta 250.000 euros, cuando en función del precio medio y volumen certificado, el volumen de facturación del producto sea inferior a 9.000.000 de euros.

– Hasta 300.000 euros, cuando en función del precio medio y volumen certificado, el volumen de facturación del producto sea superior a 9.000.000 de euros.

f) Por organización de misiones inversas, hasta 800 euros por acción siendo el importe máximo anual por solicitante para el conjunto de las acciones de este apartado de 10.000 euros. El desplazamiento con vehículo se computará 0,29 euros/km hasta un máximo de 500 euros.

Benetan etorri diren gonbidatuen gastuak baino ez dira onartuko, eta behar bezala justifikatu beharko da hori.

g) Sustapeneko dastatzeak antolatzeagatik, gehienez 100 euro ekintzako, eta atal honetako ekintzetarako, eskatzaile bakoitzeko, urteko gehienezko zenbatekoa 1.000 eurokoa izango da.

Pertsona onuradunak aurkeztutako kostua salgai asimilatuen janaritegi-prezioa izango da.

***34. artikulua.***– Diruz laguntzekoak ez diren gastuak.

Ondorengo gastuak ez dira diruz laguntzekoak izango:

a) Ferietan erakusketari gisa parte hartzean, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren, sektoreko elkarteen edo Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberaren edo ekoizleen elkarteak laguntzen dituzten antzeko erakundeen erakustoki bat ez dagoen ferietan parte hartzeagatiko gastuak, feria horietan euskal ekoizleen elkarteentzat feria-espazio bat eskaini bada. Erregela honetatik kanpo geratzen dira espazio hori eskatu eta, eskatzailearen esku ez dauden kausengatik, eskaera horiei ezin erantzun izan bazaie. Kasu honetan, emandako laguntza erakustokiaren m²-aren benetako kostuari doituko zaio, eta Sailarekin batera parte hartzen duten ekoizleen elkarteen kostuari, dekretu honetan ezarritako mugak gainditu gabe.

b) Zuzeneko misioetan eta produktuen aurkezpenetan, ekintza Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak, sektoreko elkarteek edo Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberak edo ekoizleen elkarteak laguntzen dituzten antzeko erakundeek antolatutako beste batekin egokitzen bada.

c) BEZ.

***35. artikulua.***– Berariazko eskakizunak.

Laguntza eskatzen dutenek, eskabidea egiteko garaian, dekretu honen 6. artikuluan xedatutakoa betetzeaz gain, eskakizun hauek ere bete beharko dituzte kapitulu honetan araututako laguntza jaso ahal izateko:

a) Parte hartzeaz gain, nekazaritza- edo elikadura-produktu jakin bati buruzko elikagaien kalitate-programa bat kudeatu beharko dute.

b) Nekazaritzako produktuak eta elikagaiak eraldatu, merkaturatu eta sustatzeko laguntzak emateko urriaren 7ko 172/2008 Dekretuaren IV. kapituluan (Lehiatu programa) aurreikusitako laguntzen onuraduna ez izatea.

c) Dekretu honen 21. artikuluan, nekazaritza- edo elikadura-produktu jakin bati buruz aurreikusitako elikagaien kalitate-programaren batean parte hartu izana egiaztatzeko agiriak.

d) Informazio, sustapen, argitalpen eta publizitateko material guztiak 21. artikuluaren 2. paragrafoan

Sólo se admitirán gastos de aquellos invitados que hayan acudido finalmente, lo cual deberá ser debidamente justificado.

g) Por organización de catas promocionales, hasta 100 euros por acción siendo el importe máximo anual por solicitante para el conjunto de las acciones de este apartado de 1.000 euros.

El coste presentado por la persona beneficiaria será el precio de bodega del género asimilado.

***Artículo 34.***– Gastos no subvencionables.

No serán objeto de subvención los siguientes gastos:

a) En la participación en ferias como expositor, gastos de participación en las ferias donde exista un stand del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación Asociaciones sectoriales, o Cámaras de Comercio Industria y Navegación, u organismos similares que apoyen agrupaciones de productores, donde se haya ofertado espacio ferial a las agrupaciones de productores vascos. Quedan excluidas de esta regla las agrupaciones de productores que habiendo solicitado dicho espacio, no hayan podido ser atendidas sus peticiones por causas ajenas al solicitante. En este caso, la ayuda otorgada se ajustará el coste efectivo del m² de stand, al coste de las agrupaciones de productores que acuden con el Departamento, sin superar los límites establecidos en este decreto.

b) En las misiones directas y presentación de productos, cuando la acción sea coincidente con otra organizada por el Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, asociaciones sectoriales, o Cámaras de Comercio Industria y Navegación, u organismos similares que apoyen agrupaciones de productores.

c) El IVA.

***Artículo 35.***– Requisitos específicos.

Las personas solicitantes de la ayuda, en el momento de la solicitud, además del cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 6 del presente Decreto, para poder tener derecho a la ayuda regulada en este capítulo, deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Además de participar, deberán gestionar un programa de calidad de los alimentos en relación con un producto agrícola o alimenticio concreto.

b) No ser persona beneficiaria de las ayudas previstas en el Capítulo IV del Decreto 172/2008, de 7 de octubre, de ayudas a la transformación, comercialización y promoción de productos agrarios y alimentarios (Programa Lehiatu).

c) Documentación acreditativa de la participación en alguno de los programas de calidad de los alimentos previstos en el artículo 21 del presente Decreto, en relación con un producto agrícola o alimenticio concreto.

d) Que en el material de información, promoción, publicación y publicidad contenga el logo comunitario

ezarritako kalitate-programen erkidegoaren logoa izatea.

e) Diruz lagundutako ekintzek portaera oldarkorrak ez bultzatzea, ezta jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo beste edozein egoera edo inguruabar pertsonal edo sozialengatiko bereizkeriarik ere.

f) Diruz lagundutako ekintzak horiek bultzatzen dituzten produktuak kontsumitzeko jende egokiari zuzenduta egotea.

g) Ekoizleen beste elkarte batzuekin batera feria eta erakusketetan parte hartuz gero, hori antolatzeko merkataritza-akordioa egotea.

h) Kalitate-programak beste autonomia-erkidego batzuekin banatzen badira, hots, ekoizpenak zenbait autonomia-erkidegotan babesten badira, diruz lagundutako ekintzak programa horrek Euskal Autonomia Erkidegoan ziurtatzen duen bolumenarekiko proportzionalak izango dira.

i) Informazio- eta sustapen-ekintzek 21. artikuluaren 2. paragrafoan ezarritako kalitate-programetan barne hartutako produktuen ezaugarriak edo berariazko abantailak, berariazko ekoizpen-metodoak eta abereen ongizatea eta ingurumenarekiko errespetua bermatzeko aplikatutako arau zorrotzak azpimarratzea.

***36. artikulua***.– Berariazko agiriak.

Kapitulu honetan aurreikusitako laguntza eskatu nahi duten pertsonek, dekretu honen 7. artikuluan ezarri den aurkeztu beharreko agiriak aurkezteaz gain, hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskabidea, dekretu honen eranskinean aurreikusitako eredua erabiliz. Eredua web-orri honetan egongo da eskuragarri: www.nasdap.ejgv.euskadi.net.

b) Memoria esplikatzailea. Horretan zehaztuko dira, gutxienez, diruz laguntzeko ekintzen helburuak, esparrua, ekintzak, iraupena eta kostua, gauzatu beharreko ekintzak ondorio positibo argia izatea epe ertain edo laburrera ekoizleen elkartearen merkaturatze-jardueran, eta diruz laguntzeko ekintza garatu nahi den destinoan horien produktuetarako benetako merkatu bat egotea.

c) Informazio, sustapen eta publizitateko material guztia, diruz lagundutako jarduera batean landutako materialak erkidegoko araudiari jarraitzen diola eta 35.i) artikuluan xedatutakoa betetzen duela ikusteko.

d) Dekretu honen 21. artikuluan, nekazaritza- edo elikadura-produktu jakin bati buruz aurreikusitako elikagaien kalitate-programaren batean parte hartu izana egiaztatzeko agiriak.

e) 31. artikuluaren b) atalean aurreikusitako jarduerarako, artikulu honetan jasotako b) ataleko memoria esplikatzaileaz gain, parte hartu nahi deneko feria hautatu izanaren justifikazioa, eta ferian edo era-

relativo a los Programas de Calidad establecidos en el artículo 21 párrafo 2.

e) Que las acciones subvencionadas no fomenten las conductas agresivas, ni la discriminación alguna por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.

f) Que las acciones subvencionadas se dirijan a público apto para el consumo de los productos objeto de las mismas.

g) En el caso de participación compartida con otras agrupaciones de productores en ferias y exposiciones, existencia del acuerdo comercial que lo instrumente.

h) En el caso de que los programas de calidad sean compartidos con otras Comunidades Autónomas, es decir, cuando amparen producciones en diferentes Comunidades Autónomas, las acciones subvencionadas serán proporcionales al volumen certificado por ese programa en el País Vasco.

i) Que las actividades de información y promoción resalten las características o ventajas específicas de los productos acogidos a los Programas de Calidad establecidos en el artículo 21 párrafo 2, los métodos de producción específicos así como las estrictas normas aplicadas para garantizar el bienestar de los animales y el respeto al medio ambiente.

***Artículo 36***.– Documentación específica.

Las personas que deseen solicitar la ayuda prevista en el presente capítulo, además de la documentación general a presentar establecida en el artículo 7 del presente Decreto, deberán presentar:

a) Solicitud en el modelo previsto en el anexo del presente Decreto, que estará disponibles en la web: www.nasdap.ejgv.euskadi.net.

b) Memoria explicativa, en la que se detallarán como mínimo los objetivos, ámbito, acciones, duración y coste de las acciones subvencionables, que la acción a realizar tenga una previsible repercusión positiva a corto o medio plazo en la actividad comercializadora de la agrupación de productores y que exista un mercado real para sus productos en el destino donde se quiera ejercer la acción subvencionable.

c) Todo el material informativo, promocional y publicitario, con el fin de observar que dicho material, elaborado en el contexto de una actividad subvencionada, es conforme a la normativa comunitaria y que cumple con lo dispuesto en el artículo 35.i).

d) Documentación acreditativa de la participación en alguno de los programas de calidad de los alimentos previstos en el artículo 21 del presente Decreto, en relación con un producto agrícola o alimenticio concreto.

e) Para la actividad contemplada en el artículo 31, apartado b), la memoria explicativa recogida en el apartado b) del presente artículo, se completará con una justificación de la elección de la feria en la que se quiere

kusketan erakusketari gisa egindako izen-ematearen fotokopia.

f) 31. artikuluaren c) atalean aurreikusitako zuzeneko misioaren jarduerarako, artikulu honen b) atalean jasotako memoria esplikatzailea beste memoria batekin osatuko da, hauek zehaztuko dituena: misioaren helburuak, merkatua hautatzeko arrazoiak, bisitaldien egitaraua, bisitatu beharreko erosle edo preskriptoreen zerrenda eta aurreikusitako kostuak.

g) 31. artikuluaren d) atalean aurreikusitako jarduerarako, artikulu honen b) atalean jasotako memoria esplikatzailea ekitaldi, biltzar edo jardunaldi tekniko horretan egin beharreko jardueren deskribapen zehatza jasotzen duen beste memoria batekin osatuko da.

h) 31. artikuluaren e) atalean aurreikusitako jarduerarako, artikulu honen b) atalean jasotako memoria esplikatzailea beste memoria batekin osatuko da, hauek azalduko dituena: badituen sustapen-materialen eta gauzatu nahi direnen azalpena, horiekin lortu beharreko helburuak, aurreikusitako kostuak eta batez besteko prezioa eta ziurtatutako bolumena justifikatzeko agiriak, 33.2 artikuluaren e) atalean ezartzen den bezala.

i) 31. artikuluaren f) atalean aurreikusitako jarduerarako, artikulu honen b) atalean jasotako memoria esplikatzailea beste memoria batekin osatuko da, hauek zehaztuko dituena: alderantzizko misioaren helburuak, bisitaldien egitaraua, erosle edo preskriptore gonbidatuen zerrenda eta aurreikusitako kostuak.

j) 31. artikuluaren g) atalean aurreikusitako jarduerarako, artikulu honen b) atalean jasotako memoria esplikatzailea beste memoria batekin osatuko da, hauek jasoko dituena: dastatzea egingo den lekua eta data, zer ekintzatan egingo den, hala badagokio, eta xede horretara bideratutako produktuaren kantitatea.

k) Feria eta erakusketetan ekoizleen beste elkarte batzuekin batera parte hartuz gero, merkataritza-akordioa eta aurreikusitako gastuak nahikotasunez egiaztatzen dituen agiriaren fotokopia.

l) Nekazaritzako produktuak eta elikagaiak eraldatu, merkaturatu eta sustatzeko laguntzak emateko urriaren 7ko 172/2008 Dekretuaren IV. kapituluan (Lehiatu programa) aurreikusitako laguntzak ez jaso izanaren zinpeko aitorpena.

***37. artikulua.***– Pertsona onuradunen berariazko betebeharrak.

1.– Dekretu honen 12. artikuluan ezarritako betebehar orokorrak betetzeari kalterik egin gabe, kapitulu honetan aurreikusitako laguntzen onuradunek dirulaguntza jasoko duten jarduerei buruzko informazio edo publizitate guztian jaso beharko dute erkidegoko fondoek eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak batera finantzatuta dagoela, abuztua-

participar y la copia de la solicitud de inscripción efectuada como expositor en la feria o exposición.

f) Para la actividad de misión directa contemplada en el articulo 31 apartado c), la memoria explicativa recogida en el apartado b) del presente artículo se complementará con una memoria que contenga de forma detallada los objetivos de la misión, los motivos de la elección del mercado, el programa de visitas, la lista de compradores o prescriptores a visitar y los costes previstos.

g) Para la actividad contemplada en el articulo 31, apartado d), la memoria explicativa recogida en el apartado b) del presente artículo se complementará con una memoria que contenga una descripción detallada de las actividades a realizar en dicho evento, congreso o jornada técnica.

h) Para la actividad contemplada en el articulo 31 apartado e), la memoria explicativa recogida en el apartado b) del presente artículo se complementará con una memoria que explique los materiales de promoción de los que ya se dispone y los que desea realizar, los objetivos a alcanzar con ellos y los costes previstos y la documentación relativa a la justificación del precio medio y volumen certificado tal y como se establece en el artículo 33.2 apartado e).

i) Para la actividad contemplada en el artículo 31 apartado f), la memoria explicativa recogida en el apartado b) del presente artículo se complementará con una memoria que contenga de forma detallada los objetivos de la misión inversa, el programa de visitas, la lista de compradores o prescriptores invitados y los costes previstos.

j) Para la actividad contemplada en el artículo 31 apartado g), la memoria explicativa recogida en el apartado b) del presente artículo se complementará con una memoria que contenga el lugar y fecha de la cata, acto en el que se va a realizar en su caso, así como la cantidad de producto destinada a dicho fin.

k) En el caso de participación compartida con otras agrupaciones de productores en ferias y exposiciones, copia del documento que acredite suficientemente el acuerdo comercial y los gastos previstos.

l) Declaración jurada de no haber recibido ayudas conforme al Capítulo IV del Decreto 172/2008, de 7 de octubre, de ayudas a la transformación, comercialización y promoción de productos agrarios y alimentarios (Programa Lehiatu).

***Artículo 37.***– Obligaciones específicas de las personas beneficiarias.

1.– Sin perjuicio del cumplimiento de las obligaciones generales establecidas en el artículo 12 del presente Decreto, las personas beneficiarias de las ayudas previstas en el presente capítulo deberán hacer constar en toda información o publicidad que se efectúe de las actividades objeto de la subvención, que la misma está cofinanciada por fondos comunitarios y por el Depar-

ren 31ko 318/1999 Dekretuak (1999ko urriaren 26ko 205. EHAA) araututako Eusko Jaurlaritzaren Korporazio-identitatearen eskuliburuan ezarritakoari jarraiki.

2.– Kapitulu honetan aurreikusitako laguntzen onuradunek diruz lagundutako programaren bilakaera zehaztuko duen memoria bat aurkeztu beharko dute hori eskatzerakoan: pertsona ekoizleen eta babestutako enpresen kopurua, ziurtatutako bolumena, tipoak eta zer merkatutan merkaturatzen den, besteak beste.

***38. artikulua.***– Proiektuen balorazioa.

Kapitulu honetan jasotako proiektuen balorazioak proiektu bakoitzari eman beharreko puntuazio bat sortuko du, eta horren bitartez kalkulatuko da dirulaguntza, dekretu honen 39. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Irizpide objektibo hauetako bat edo batzuk hartuko dira kontuan proiektuak baloratzerakoan:

1.– Dekretu honen 8. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako urteko deialdi-aginduan, hala badagokio, lehentasunezko gisa ezarritako kalitate-programetakoak diren ekoizleen elkarteak: gehienez 40 puntu.

2.– EAEtik kanpo sustapen- edo informazio-ekintzak eta sustatu nahi diren produktuetarako merkatu berriak irekitzea ekartzen duten jarduerak: gehienez 30 puntu.

3.– Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren Industria eta Elikagaien Kalitateari buruzko plan estrategikoan aldi horretarako lerrokatutako diruz laguntzeko ekintzak: gehienez 20 puntu.

